

2024ko MEMORIA UDALTZAINGOA



1

AURKIBIDEA

2

AURKEZPENA

Misioa, ikuspegia eta balioak.

- 2.1 Ikuspegia. Misioa.
- 2.2 Balioak.

3

ADMINISTRAZIOA-POLIZIA

Administrazio-arloko askotariko araudien kontrolari buruzko informazioa eta jarduera.

- 3.1 Komunikazioa eta informazioa.
- 3.2 Udal-ordenantzak.

4

TRAFIKO ETA BIDE SEGURTASUNA

Zaintzea, antolatzea eta arautzea. ***Istripu-tasa.***

- 4.1 Trafiko-istripu artatuak.
- 4.2 Trafiko-istripu motak.
- 4.3 Istripuak zaurituekin: arrazoiak.
- 4.4 Harrapatzeen arrazoiak.
- 4.5 Biktimologia istripu-tasan.
- 4.6 Trafikoaren zaintza berezia.
- 4.7 Trafiko-kontrolak.
- 4.8 Ibilgailuen udal-biltegia.
- 4.9 Egindako trafiko-salaketak.

5

POLIZIA JUDIZIALA ETA IKERKETA

Udalerriko delinkuentzia-datua. ***Delitua ikertzea.***

- 5.1 Delituak, salaketak eta ikerketa.
- 5.2 Indarkeria matxista.
- 5.3 Udaltzaingoak ikertu eta atxilotu dituen pertsonak.

1

6

HERRITARREN SEGURTASUNA ETA HURBILTASUNA

Babesa eta arreta. ***Prebentzio-ekintzak.*** ***Zaintzak.***

- 6.1 Protekzioa eta hurbiltasuna.
- 6.2 Prebentzioa eta babesa.





Aurkezpena

Misioa, ikuspegia eta balioak.



Dokumentu honek Basauriko Udaltzaingoaren 2024ko jardueraren urteko memoria jasotzen du.

Helburua da erakundearen beraren datu garrantzitsuenak biltzea eta islatzea, bai eta Udaltzaingoak egindako jarduerari buruzkoak ere, eta herritarrek datu horiek zuzenean eskura izatea, modu garden, egiazko eta hurbi-lean, horiexek baitira Udaltzaingo honen nortasun-ezaugarriak.

Helburua da jarduera presentzial nabarmena lortzea gizarte-, merkataritza- eta lan-esparruan, eta pertsona eta ibilgailu gehiago egotea gure kaleetan. 2024an, ibilgailu-flotari furgoneta bat gehitu diogu, herritar guztiei zerbitzua emateko benetako bulego mugiko-

rra dena. Basauri udalerri segurua da oraindik ere; hala erakusten dute delinkuentzia-datuak, segurtasun publikoko zerbitzuaren eskaintza onarekin. Zerbitzua, Udaltzaingoarena, berregituratze- eta berritze-prozesuan jarraitzen duena, basauriarren eskubideak eta askatasunak gozatzen direla bermatzeko.

Nabarmentzekoa da plantilla gaztetzeko prozesua eraman dela aurrera eta Udaltzaingoan emakumeen presentzia handitu dela. Horri esker, oreka egokia lortu da beteranoen eta gazteen artean, segurtasun-zerbitzu egokia emateko betiere.

Amaitzeko, balioa eman behar zaio Ertzaintza-rikiko eta Babes Zibileko Boluntarioen Elkar-tearekiko eguneroko osagarritasunari.



Ikuspegia

Basauriko Udaltzaingoa funtsezko zerbitzu publikoa da, profesionala, Basauriko herritarrei urteko 365 egunetan 24 orduz arreta ematen diena, Udaltzaingo integrala, baloratua eta herritarren beharretatik hurbil dagoena agenteen profesionaltasunetik eta inplikaziotik abiatuta, eta etengabeko hobekuntzara eta aldaketara egokitzen bideratua.





Udaltzaingoaren eginkizun nagusia da eskubideen eta askatasunen erabilera libreba babestea eta herritarren segurtasuna bermatzea, bizikidetza baketsua zainduz, eta pertsonak eta haien ondasunak babestuz, Legearen arabera, horrela herritarren bizi-kalitatea eta gizarte-ongizatea hobetuz. Zehazki, honela eramango dugu aurrera:

- 1 Herritarrak eta bertako agintariak babestea espazio publikoa zainduz, gatazken bitartekaritzan lagunduz eta Legea beteko dela bermatuz.
- 2 Ezagutzen diren delituak ikertzea, haien eragina ebaluatzea eta inplikaturako pertsonak epailearen esku uztea.
- 3 Herrigunean trafikoa antolatzea, seinaleztatzea eta zuzentzea, zirkulazio-arauetan ezarritakoaren arabera. Horrez gain, kirol-ekitaldietan eta -probetan laguntzea, dena behar bezala atera dadin, eta parte-hartzaileen eta gainerako herritarren segurtasuna bermatzeko.
- 4 Udaltzaingoaren eskumenen esparruan, administrazio-poliziaren zereginak egitea ordenantzei, bandoei eta gainerako udal-xedapenei eta -egintzei dagokienez, eta tokiko eskumenen esparruan, ingurumeneko eta ingurunea babesteko araudia betetzen dela zaintzea.
- 5 Laguntza-polizia, istripuetan, katastrofeetan edo hondamendietan laguntza emanez, gizarte-zerbitzuen sarearekin elkarlanean.

Tokiko segurtasun publikoaren erakunde gisa dugun ikuspegia lortzeko eta Basauriko Udaleko Gobernu Taldeak eman digun eginkizuna betetzeko, honako balio hauek ditu arau Udaltzaingoak:

- 1 Komunitateari zerbitzu ematea:** Udaltzaingoak bere ardurapeko komunitatearen segurtasuna eta ongizatea zaintzen ditu, eta bizikidetza, errespetua eta ordena publikoa sustatzen ditu.
- 2 HURBILTASUNA:** Hurbiltasunetik eta gure zerbitzua ematen diegun pertsonetikiko jarrera irekitik.
- 3 Lankidetza:** Udaltzaingoa beste segurtasun-kidego batzuekin elkarlanean aritzen da, hala nola Ertzaintzarekin eta beste udal atal batzuekin, herritarren segurtasuna bermatzea helburu.
- 4 Gardentasuna:** herritarrekiko komunikazioan argitasuna eta zintzotasuna sustatzen dira, eta konfiantza eta lankidetza-giroa sortzea bilatzen da.
- 5 Berdintasunarekiko konpromisoa:** Udaltzaingoak herritar guztientzako tratua eta aukera berdintasuna bermatu behar ditu, generoagatiko, arrazagatiko, sexu-orientazioagatiko, erlijioagatiko eta abarrekiko diskriminaziorik gabe.
- 6 Lantaldea:** zerbitzuaosatzen duten pertsonak dira Basauriko Udaltzaingoaren indargunea, beren helburuak gidatuko dituen lidergo aktibo batenekin.
- 7 Etengabeko hobekuntza:** gure lanaren aldi-zkako ebaluazioa egiten dugu, gure jarduna berrikusi eta hobetzeko.





Administrazioa- Polizia

***Administrazio-arloko askotariko
araudien kontrolari buruzko
informazioa eta jarduera.***

BARNE-KOMUNIKAZIOA

ARRAZOIA	KOPURUA
Polizia-jarduketari buruzko eguneroko txostenak eta berritasunak	365
Txostenak Udalaren sailei	298
Galdutako eta aurkitutako gauzen kudeaketa	642
Udal-ordenantzen inguruko gorabeherei buruzko txostenak eta salaketak Udalaren sailei	46
GUZTIRA	1.351

Udaltzaingoak informazioa biltzeko, tratatzeko eta lantzeko lan handia egiten du urtero, eta, ondoren, erakundeak berak kontsumitzen du informazio hori, edo beste erakunde batzuetara bideratzen du: udal-sailetara, Ertzaintzara, epaitegietara...

Herritarrek ikusten ez duten lan hori egiteko, barne-prozedura egokiak erabili behar dira, jasotako kasuistika behar bezala aprobetxatzeko, segurtasun-eskaintzaren baliabideen kudeaketan aplikatu ahal izateko.

BESTE INSTANTZIA BATZUETARAKO TXOSTENAK

ARRAZOIA

KOPURUA

Partikularrei eta aseguru-etxeei txostenak egitea	158
Epaitegien jakinarazpenak/zitazioak/eskabideak	480
Ararteko	1
Herriaren Defendatzailea	1
HSLO salaketak	46
Beste batzuk (Alokabide...)	5

GUZTIRA

691

Basauriko Udaltzaingoak Arartekoaren Abako Proiektuan parte hartzen du urtero, Torturaren Prebentziorako Mekanismo Nazionalaren (MNT) barruan, eta modu gardenean ematen du askatasunaz gabetutako pertsonen atxilotetan eta zaintzan Udaltzaingoak aurrera eramandako jarduera.

Era berean, Arartekoaren Bulegoaren galdetegiari erantzun zaio, Basauriko Udaltzaingoak atxilotutako pertsoneri buruz eskatutako datuei dagokienez.

ARRAZOIA**KOPURUA**

Gorabeherak animaliekin	272
Gorabeherak txakurrekin	145
Gorabeherak ostalaritzako araudiarekin	18
Gorabeherak zaratarekin	731
Gorabeherak obretako araudiarekin	78
Gorabeherak isuriekin	26
Beste arau eta ordenantza batzuk	97

GUZTIRA**1.367**


Udal Ordenantzen esparruko esku-hartzeak ofizioz edo partikularrek eskatuta egiten dira. Udaltzainek lehen esku-hartzea egin eta gertatutakoa egiaztatu ondoren, eskumena duen Udal-sailari dagokion txostena

edo salaketa-akta igortzen zaio, dagokion espedientea tramita dezan.

2024an, % 4 jaitsi dira mota horretako esku-hartzeak.


ZARATEN ONDORIOZKO ERAGOZPENEN JATORRIA

Zaraten ondoriozko eragozpenengatik irekitako gorabeherak % 7,4 igo dira baina ez dira iristen 2022ko mailetara, grafikoan ikus dezakegun bezala.



- ZARATA BIDE PUBLIKOAN
- ZARATA ETXEBIZITZETAN
- ZARATA TERRAZETAN
- ZARATA GAZTE-LONJAN
- ZARATA SALTOKIETAN / ENPRESETAN

ZARATA SALTOKIETAN / ENPRESETAN



BILAKAERA, URTEKA

■ 2024 ■ 2023 ■ 2022


Azken urteotako joerarekin hautsi, eta, 2024an, mantendu egin da Udaltzaingoak alor horretan izandako esku-hartzeak. 2020tik, pandemia betearen garaian, nabarmen egin zuten gora partikularren arteko tirabirek: guztira, % 43,90eko igoera metatua izan zuten, 2020ko kopuruak oinarri hartuta. Bada, lau urtean lehenengo aldiz, gelditu egin da igoera hori, eta 2023ko esku-hartzeen kopurua mantendu egin da 2024an ere.

Liskarrak bi pertsonaren edo gehiagoren arteko desadostasunak dira, eta Udaltzaingoaren esku-hartzeak halakoak baretzea lortzen du, garrantzi handiagoko gertakaririk eragin gabe, hala nola erasoak, mehatxuak, irainak eta abar.

Elkarbizitzako desadostasunen, gizalege faltarekin loturiko gertakizunen, udal-ordenantzak ez betetzeagatiko erantzukien eta partikularren arteko salerosketen eta merkataritza jardueren ondorio dira arazo gehienak.

Udaltzaingoak bitartekari-lana egiten du, gatazka hasieran konpondu ahal izateko, eta, ondoren, Udaleko Auzo-bitartekaritzako

PARTIKULARREN ARTEKO LISKARRAK



2020. URTETIK GORAKADA

+% 43,9



Trafiko eta bide segurtasuna


***Zaintzea, antolatzea eta arautzea.
Istripu-tasa.***

Mugikortasunari dagokionez, 2024an beherako joerak jarraitzen du, trafiko-istripuen alorrean. Zaurituak egon diren istripuen kopurua mantendu egin da, eta zauriturik gabeko istripuek, berriz, % 30,8 egin dute behera.

2024an zehar, baina, hildako bat egon da udalerrian, trafiko-istripu batean.

Ez da ahaztu behar istripu arinen kopurua, "txapa-kolpeak"; izan ere, ezbehar pertsonalik eragin ez arren, jokabide onartezinak erakusten dituzte gidatzean, gehienak deskuiduen edo trafiko-araudia ez betetzearen ondorio direlako. Horrelako istripuek arrisku potentziala sortzen dute, eta pertsona zaurituak, eta hildakoak ere, eragin ditzakete. Azken urteetan joera egonkorra eutsi zaio.

	2022	2023	2024
BIKIMEKIN	39	48	49
BIKIMARIK GABE	355	240	166
ISTRIPUAK GUZTIRA	394	288	215



ISTRIPUAK 2024


- BIKIMARIK GABE
- BIKIMEKIN

Trafiko-istripu motak

	2021	2022	2023	2024
TALKAK	373	385	273	159
HARRAPATZEAK	12	11	10	13
BESTE BATZUK	6	2	5	43



ISTRIPUAK, GEOGRAFIKOKI




BANAKETA GEOGRAFIKOA

Udalerriko istripu-tasaren kalekako banaketari dagokionez, ikus daiteke istripu gehienak Agirre Lehendakaria eta Artunduaga, Ibarreta eta Zabalandi kaleetan gertatzen direla.


Udalerriko azken bi kale horiei dagokionez, nabarmendu behar da zirkulazio handia izaten dela bertan daudelako Mercabilbao eta Bilbondo merkataritza-gunea.

Istripuak zaurituekin: arrazoia



Udalerriko istripu-tasaren arrazoi nagusiak honako hauek dira oraindik ere:

- ARRETA GALTZEA
- TRAFIKO-ARAUA EZ BETETZEA
- SEGURTASUN-DISTANTZIA



Aurreko urteetan bezala, udalerrian gertatzen diren harrapatze gehienen erantzulea ez da oinezkoa, pentsa daitekeenetik urrun. Arrazoi nagusiak dira lehentasun-araudia ez betetzea eta gidariak arreata galtzea.



Biktimologia istripu-tasan

4.5

	2022	2023	2024
GIDARIA			
HILDAKOAK	0	0	0
ZAURITU LARRIAK	1	1	2
ZAURITU ARINAK	27	27	28
ZAURIRIK GABE	272	245	262
BIDAIARIA			
HILDAKOAK	0	0	0
ZAURITU LARRIAK	0	0	0
ZAURITU ARINAK	11	10	17
ZAURIRIK GABE	29	22	25
ONEZKOA			
HILDAKOAK	1	0	1
ZAURITU LARRIAK	2	4	3
ZAURITU ARINAK	9	9	9
ZAURIRIK GABE	0	2	1

	2022	2023	2024
HILDAKOAK			
GUZTIRA	1	0	1
EMAKUMEAK	0	0	1
GIZONAK	1	0	0
ZAURITU LARRIAK			
GUZTIRA	3	5	6
EMAKUMEAK	1	0	3
GIZONAK	2	5	3
ZAURITU ARINAK			
GUZTIRA	49	45	37
EMAKUMEAK	18	17	16
GIZONAK	31	28	21



Trafikoaren zaintza berezia

	2022	2023	2024
Orokorra	653	681	821
Ikastetxeetan	336	299	256
Manifestazioak	24	21	20
Galtzako anomaliak	424	302	256
Ibilgailuei laguntzea	65	81	76
GUZTIRA	1.502	1.384	1.429

Errepideetako istripuen tasak hobetzeko eta bide-segurtasunaren pertzepzio handiagoa sortzeko, zirkulazioaren zaintzaren eta kontrolaren intentsitateari eutsi zaio, eta arreta berezia jarri da ikastetxeetako eta kasuistika zehatzak dituzten erregulazio orokorreko eremuetako zaintzetan.

Era berean, trafikoa arautzen lagundu da udalerrian egindako manifestazioetan.

Ez da ahaztu behar agente zibikoek eskola-eremuetan egindako trafikoaren erregulazioa, eskoletan 370 trafiko-erregulazio egin baitituzte lanean aritu diren hilabeteetan.



IBILGAILUEN GAINEKO KONTROLAK

	2022	2023	2024
Trafikoko kontrol orokorra	131	92	76
IAT kanpaina - gabezia tekn.	8	9	8
Segurtasun-uhalaren eta haurrak lotzeko sistemaren kanpaina	5	6	5
Alkohola / drogak	80	82	85
Abiadura	143	125	104
Mugikorra eta arreta galtzea	25	25	14
GUZTIRA	392	339	292



UDAL-GARABIAK EGINDAKO ZERBITZUAK

Udal Garabi Zerbitzuak Udaltzaingoari laguntza ematen dio ibilgailu arau-hausleak bide publikotik kentzeko, eta, gainera, laguntza ematen dio seinaleak jartzen, trafiko-istripuetan eta kultura- eta kirol-ekitaldietan.

	2022	2023	2024
Biltegira eramatea	406	448	486
Geldiaraztea	36	66	67
Lekuz aldatzea	7	16	21
GUZTIRA	449	530	574

(*) Ibilgailuen Tratamendurako Zentro Baimendua (desguazea). Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak zentro baimendu horien zerrenda argitaratzen du.

2022

2023

2024

92

78


108

TZB*RA ERAMANDAKO
IBILGAILU ABANDONATUAK

Ibilgailuen abandonu-espeditenteak titularrek bide publikoan ibilgailuak nahita uzten dituztenean hasten dira batez ere. Ibilgailu horiek herritarren salaketari eta agenteen zaintzari esker aurkitzen dira. Gainerako ibilgailuak, berriz, hondakin gisa tratatzeko asmoz ibilgailua lagatzeko borondatezko baimenetatik datoz, edo udal-biltegian utzita geratzen diren eta jabeek berreskuratzen ez dituzten ibilgailuenak izaten dira. Prozesua luzea da, eta hainbat administrazio-jarduera behar ditu, eta baliteke detektatu diren unetik hilabeteak atzeratzea.

TRAFIKO SALAKETAK ETA PUNTUAK KENTZEA

Egindako trafikosalaketak



SALAKETEN KOPURUA

2.871

SALATUTAKO ARAU-HUSTEAK

2.871 gidari salatu dira trafikoarekin lotutako gertakariengatik, 2023an baino % 8,6 gehiago.

Basauriko udaltzainek eguneroko patruila-lanetan salatutako 2871 arau-hauste horietatik 498, hau da, % 17 gidabaimeneko puntuak galtzea dakarten salaketak dira, 2023ko portzentaje bera, hain zuzen ere.

Horri gehitu behar zaizkio epai judizial irmoaren bidez artxibatutako administrazio-salaketak, bide-segurtasunaren aurkako hainbat deliturengatik. Guztira 52 salaketa izan dira 2024an.



ARAU-HAUSTE GEHIEN EGIN DIREN LEKUAK

KALEA

TRAFIKO-SALAKETEN KOPURUA

ETXERRE KAMINIOA	168
AGIRRE LEHENDAKARIA	127
KAREAGA GOIKOA	464
NAGUSIA	146
ARTUNDUAGA	69
URBI	72
KARMELO TORRE	45
CERVANTES	74



Egindako trafiko-salaketak

TRAFIKO-SALAKETEN TIPOLIGIA

	2023	2024	ALDAKETA
Gelditzea eta aparkatzea	1.147	1126	-% 1
IAT eta gabezia teknikoak	487	428	-% 12
Abiadura	351	445	% 26
Asegurua	137	176	% 28
Arreta galtzea	71	62	% 12
Alkohola eta drogak	131	25	-% 30
Segurtasun-elementuak	48	25	-% 47
Gidariaren dokumentazioa	33	69	% 109
Zirkulazioko beste arau-hauste batzuk	237	515	% 116
GUZTIRA	2.642	2.871	

Urtez urte errepikatzen den bezala arau-hausteen jatorriaren arrazoi nagusia aparkatzeekin, dago lotuta.

Azpimarratzekoa da arau-hauste asko, batez ere dokumentazioarekin lotutakoak, bai gidariarenak, bai ibilgailuenak, egiten diren errepide-kontrolen bidez detektatzen direla nagusiki.





Polizia Judiziala eta Ikerketa

***Udalerriko delinkuentzia-datua.
Delitua ikertzea.***

ERTZAINZAK ETA UDALTZAINGOAK UDALERRIAN JAKINARAZITAKO ARAU-HAUSTE PENALAK MOTAREN ARABERA. 2024

Delituak, salaketak eta ikerketa

ARAU-HAUSTE MOTA	ERTZAINZAK			UDALTZAINGOAK			EUSKAL POLIZIA		
	2023	2024	Δ	2023	2024	Δ	2023	2024	Δ
Giza hilketa bere forma guztietan	1	4	300,00%	-	-	-	1	4	300,00%
Giza hilketa- / erailketa-burutua (EB)	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Giza hilketa- / erailketa-saiakuntza (EB)	-	4	-	-	-	-	-	4	-
Edozein giza hilketa motarekin lotutako beste batzuk	1	-	-100,00%	-	-	-	1	-	-100,00%
Lesioak	144	125	-13,19%	39	32	-17,95%	183	157	-14,21%
Familia barruko tratu txarrak	46	32	-30,43%	7	7	0,00%	53	39	-26,42%
Lesioak	85	85	0,00%	28	20	-28,57%	113	105	-7,08%
Beste lesio-delitu batzuk	13	8	-38,46%	4	5	25,00%	17	13	-23,53%
Tortura eta osotasunaren aurkako delituak	52	87	67,31%	12	19	58,33%	64	106	65,63%
Familia barruko tratu txar ohikoak	44	82	86,36%	8	4	-50,00%	52	86	65,38%
Tortura eta osotasunaren aurkako beste delitu batzuk	8	5	-37,50%	4	15	275,00%	12	20	66,67%
Sexu askatasunaren aurkako delituak (EB)	16	6	-62,50%	3	3	0,00%	19	9	-52,63%
Sexu-erasoa	16	5	-68,75%	2	2	0,00%	18	7	-61,11%
Tortura eta sexu-askatasunaren aurkako beste arau-hauste batzuk	-	1	-	1	1	0,00%	1	2	100,00%
Ondarearen eta ordena sozioekonomikoaren aurkakoak	1.056	923	-12,59%	318	290	-8,81%	1.374	1.213	-11,72%
Ebasketa (EB)	589	563	-4,41%	105	78	-25,71%	694	641	-7,64%
Gauzetan indarra erabiliz egindako lapurreta	137	111	-18,98%	44	58	31,82%	181	169	-6,63%
· Gauzetan indarra erabiliz egindako lapurreta, etxebizitzan (EB) (I)	35	28	-20,00%	2	2	0,00%	37	30	-18,92%
· Etxean, gauzetan indarra erabiliz egindako lapurreta	25	20	-20,00%	2	2	0,00%	27	22	-18,52%
· Etxebizitzaren beste leku batzuetan, gauzetan indarra erabiliz egindako lapurreta	10	8	-20,00%	-	-	-	10	8	-20,00%
· Indarra erabiliz enpresetan egindako lapurreta	21	3	-85,71%	3	5	66,67%	24	8	-66,67%
· Indarra erabiliz saltokietan eta beste esparru itxi batzuetan egindako lapurreta	19	26	36,84%	10	5	-50,00%	29	31	6,90%
· Gauzetan indarra erabiliz egindako lapurreta, beste leku batzuetan	62	54	-12,90%	29	46	58,62%	91	100	9,89%
Indarkeria edo larderia erabiliz egindako lapurreta (EB)	28	18	-35,71%	12	14	16,67%	40	32	-20,00%
Kalteak	147	130	-11,56%	136	113	-16,91%	283	243	-14,13%
Ibilgailu motordunak ostea (EB)	17	13	-23,53%	4	5	25,00%	21	18	-14,29%
Iruzurra	102	46	-54,90%	11	15	36,36%	113	61	-46,02%
Ondarearen aurkako beste delitu batzuk	36	42	16,67%	6	7	16,67%	42	49	16,67%
Segurtasun kolektiboaren aurkakoak	34	40	17,65%	58	59	1,72%	92	99	7,61%
Osasun publikoa: Droga-trafikoa (EB)	6	13	116,67%	1	-	-100,00%	7	13	85,71%
Edari alkoholadunen, drogen eta abarren eraginpean gidatzea	16	9	-43,75%	38	45	18,42%	54	54	0,00%
Segurtasun kolektiboaren aurkako beste delitu batzuk	12	18	50,00%	19	14	-26,32%	31	32	3,23%
Beste arau-hauste penal batzuk	174	184	5,75%	13	25	92,31%	187	209	11,76%
ARAU-HAUSTE PRESENTZIALAK GUZTIRA	1.477	1.369	-7,31%	443	428	-3,39%	1.920	1.797	-6,41%
TASA 1.000 BIZTANLEKO	36,55	33,90		10,96	10,60		47,51	44,49	
Delitu informatikoak	515	515	0,00%	13	6	-53,85%	528	521	-1,33%
Iruzur informatikoak	472	457	-3,18%	10	5	-50,00%	482	462	-4,15%
Ziberfalsifikazioak	7	15	114,29%	-	-	-	7	15	114,29%
Zibermehatxuak eta ziberhertsapenak	11	16	45,45%	1	1	0,00%	12	17	41,67%
Sekretuak agerraraztea eta ezagutaraztea	7	3	-57,14%	-	-	-	7	3	-57,14%
Ziberdelitu sexualak	1	-	-100,00%	-	-	-	1	-	-100,00%
Zibereraso informatikoak	2	7	250,00%	-	-	-	2	7	250,00%
Beste delitu informatiko batzuk	15	17	13,33%	2	-	-100,00%	17	17	0,00%
ZIBERDELINKUENTZIA GUZTIRA	515	515	0,00%	13	6	-53,85%	528	521	-1,33%
TASA 1.000 BIZTANLEKO	12,74	12,75		0,32	0,15		13,07	12,90	
ARAU-HAUSTE PENALAK GUZTIRA	1.992	1.884		456	434	-4,82%	2.448	2.318	-5,31%
TASA 1.000 BIZTANLEKO	49,29	46,65		11,28	10,75		60,57	57,39	

SARTU EUSKADIKO DELINKUENTZIA-MEMORIA 2024KO IRUDIA



Delituak, salaketak eta ikerketa

DELITUEN NAGUSITASUNA



←..... 57 DELITUAK

←..... 1.000 BIZTANLEAK

Euskal Poliziaren 2024ko Urteko Memoriatik ateratako delitu-datuetatik, Ertzaintzak eta Basauriko Udaltzaingoak 2024an erregistratutako delituak aurkeztuko dira ondoren.


1.000 biztanleko delitu-tasa 57,39koa izan da, 2023an baino % 5,25 txikiagoa.

Datuen arabera, Basauri udalerrri segurua da, eta behera egin dute ondarearen aurkako delituek, lesio-delituek eta sexu-ukigabetsunaren aurkako delituek. EAEkoa baino delinkuentzia-tasa txikiagoa du, (63,31 delitu 1.000 biztanleko), eta Bizkaikoa baino txikiagoa, (65,18 delitu 1.000 biztanleko).



Delituak, salaketak eta ikerketa

GEHIEN EMANDAKO DELITUAK 2024



Nabarmentzekoa da Basauriko deliturik ohikoena ondarearen aurkako delituak direla, eta ebasketak eta kalteak direla ohikoenak. Garrantzi handiagoko delituak kopuru onargarrietan mantendu dira Basauri bezalako herri seguru batentzat.


Hala ere, deigarria izan daitekeen datu bat dago: 2024an gure herrian gertatutako giza hilketen kopurua. Garrantzitsua da argitzea 4 delituak saiakuntza-mailan eta gertakari bakar batean egin zirela. Gainera gertakaria azkar eta modu egokian konpondu zen.

Etxebizitzetako lapurretak eta indarkeriaz egindako lapurretak % 18 eta % 20 jaitsi dira, hurrenez hurren.


Sexu-askatasunaren aurkako delituengatiko salaketak anekdotikoak dira, guztizkoaren % 0,4.

Hala ere, indarkeria matxista oraindik ere azaleratzen da biktima potentzialak etengabe zaintzea eta prebenitzea eskatzen duten datuekin. 2024an, Basauriko udaltzaingoak 11 atestatu ireki ditu indarkeria matxistarekin lotutako legez kontrako delituenatik, aurreko urteetako baino datu txikiagoa.

INDARKERIA MATXISTAREN EBOLUZIOA



EUSKAL POLIZIAREN DATU BATERATUAK BASAURIN

BASAURIKO UDALTZAINGOAK ERUZTATUAK
INDARKERIA MATXISTA KASUETAN

Udaltzaingoak ikertu eta atxilotu dituen pertsonak

Udaltzaingoak atxilotutako eta ikertutako pertsonen banaketa, delitu-tipoaren arabera, egitatea ebatzi edo argitu eta gero.

Giza hilketa eta haren formak

- Dolozko giza hilketa / erailketa (EB)
- Dolozko giza hilketa / erailketa saialdia (EB)
- Giza hilketaren eta haren formen bestelako arau-haustek

Lesioak

- Tratu txarrak familian
- Lesioak
- Lesioen bestelako arau-haustek

Tortura eta integritatearen aurkakoak



- Ohiko tratu txarrak familian
- Tortura eta integritatearen aurkako bestelako arau-haustek

Sexu-askatasunaren aurkakoak (EB)


- Sexu-erasoak
- Sexu-askatasunaren aurkako bestelako arau-haustek

Ondare eta ordena sozioekonomikoaren aurkakoak

- Ebasketa
- Lapurreta indarkeriaz gauzetan
- Lapurreta indarkeriaz gauzetan etxean (EB) (1)
- Lapurreta indarkeriaz gauzetan etxebizitzan



- Lapurreta indarkeriaz gauzetan beste gela batzuetan/eranskinetan
- Lapurreta indarkeriaz enpresetan
- Lapurreta indarkeriaz dendetan eta bestelako esp. Itxietan
- Lapurreta indarkeriaz gauzetan beste leku batzuetan
- Lapurreta indarkeriaz edo larderiez (EB)
- Kalteak
- Ibilgailu motordunak ostea (EB)
- Segurtasun kolektiboaren aurkakoak**
- Osasun publikoa: droga-trafikoa (EB)
- Alkohol eta bestelako drogen eraginpean gidatzea
- Segurtasun kolektiboaren aurkako bestelako arau-haustek
- Ordena publikoaren aurkakoak**
- Terrorismoa ondasun materialen aurka
- Terrorismoa pertsonen aurka
- Bestelako terrorismo ekintzak
- Bestelako arau-haustek ordena publikoaren aurka
- Beste arau-hauste penal batzuk**
- Beste arau-hauste penal batzuk
- Errekisitoriak




GUZTIRA **34** **186**



Udaltzaingoak ikertu eta atxilotu dituen pertsonak

BILAKAERA, URTEKA

% 95,7 hazi da 2021etik ikertutako pertsonen kopurua, eta % 34, joan den urtea aintzat hartuta.





Herritarren segurtasuna eta hurbiltasuna

***Babesa eta arreta.
Prebentzio-ekintzak.
Zaintzak.***

Protektzioa eta hurbiltasuna

GORABEHERAK ETA ESKU HARTZEAK. 092-KO DEIEN KUDEAKETA

2024an 16.582 esku hartze edo gorabehera erregistratu dira, herritarrek eskatuta edo Udaltzaingoaren beraren ekimenez. Erregistro horietako bakoitzean, litekeena da Basauriko Udaltzaingoak hainbat jarduketa egin behar izatea.

2024

ESKU-HARTZEAK

16.582

092KO DEIAK

30.743



PREBENTZIO- ETA BABES-LANAK

	2022	2023	2024
Lapurreten prebentzioa saltokietan	548	339	365
Lapurreten prebentzioa banketxeetan	54	51	35
Delituen prebentzioa ostalaritzan	397	345	327
Lapurreten prebentzioa enpresetan eta industrialdeetan	1.137	708	795
Drogak saldu, eduki eta kontsumitzearen prebentzioa	292	167	186
“Besarkada solidarioen” prebentzioa (lapurretak adinekoei)	296	183	122
Genero-indarkeriaren biktimen babes	61	131	148
Indarkeriazko lapurreten prebentzioa	548	364	306
GUZTIRA	3.333	2.288	2.284



HERRITARREN BABESA

	2022	2023	2024
Pertsona susmagarrien identifikazioa	187	147	108
Prebentzio-ekintzak: oinezko patruilak	622	551	556
Prebentzio-ekintzak: patruila mistoak	867	687	1.135
Babes- eta segurtasun-kontrolak	229	128	131
Alarmeri erantzutea	242	166	192
GUZTIRA	2.147	1.679	2.122



KONTAKTATU



092 - 944666341



udaltzaingoa@basauri.eus



@BasauriPolizia

